

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3473

AGINDUA, 2016ko uztailaren 13koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez diru-laguntzak ematea arautzen baita, 2016ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan jarduera fisikoa sustatzeko.

Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, euskal herri-aginteei dagokie osasuna sustatu eta indartzea jarduera sozio-ekonomikoan diharduten sektore guztietan, honako helburu hauek lortzeko: bizi-ohitura osasungarriak suspertzea, arrisku-faktoreak desagerraraztea, ondorio kaltegarrien eragina saihestea eta, batik bat, osasunaren garrantziaz sentsibilizatu eta kontzientziaztea. Zehatzago, bigarren atalak dioenaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren ardura da osasunaren erakunde-esparrua zaintzea EAEn; xede horrekin, izan ere, gomendioak eman edo neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, sektore politiko guztietan osasuna aintzat har dezaten, eta, era berean, diziplina anitzeko ekintzak bultzatuko ditu, osasun-ekintzen osagarri, biztanleen osasun maila etengabe hobetzeko.

Aipatutako legearen 3. artikulua adierazten du osasunaren alorreko euskal administrazioari dagokiola osasun publikoaren babes orokorra bermatzea, osasuna sustatzeko neurrien bidez. Halaber, lege horren 14. artikulua adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko organo guztiak, bakoitza dagokion sektoreko ikuspuntutik, elkar hartuta arituko direla osasun-hezkuntzaren eremuan sistematikoki gauza ditzaketen ekintzetan, funtsezkoak baitira pertsona bakoitzaren eta komunitatearen osasuna hobetzeko.

Azkenik, 15. artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-korporazioek antolamendu juridikoak esleitzen dizkien osasunaren eta osasungarritasunaren kontrolerako eskumenak gauzatuko dituzte, zehazki antolamendu juridikoak esleitzen dizkienak, jarduera osagarriak gauzatzeko duten ahalmen instituzionala eragotzi gabe, eta, hala badagokio, Autonomia Erkidegoak haiei eskuordetutako eskumenak ere gauzatuko dituzte; jarduera guztiak Euskadiko Osasun Planaren helburuetara egokituko dira, eta autonomia-erkidegoko Osasun Sailaren koordinazioaren eta goi-mailako ikuskaritzaren mende jarriko. Eginkizun horiek gauzatzeko, toki-korporazioek EAEko osasun-sistemako langileen laguntza teknikoa eta bitartekoak jaso beharko dituzte. Lan-kidetza-tresnak sustatuko dira, eta, hala badagokio, behar diren koordinazio-organoa espezifikokoak sortuko.

Apirilaren 18ko 195/2013 Dekretuaren, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenaren, 8.1 artikuluari jarraituz, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren zeregina da, besteak beste, politika eta esku-hartze eraginkorrak bultzatzea Jaurlaritzaren gainerrako sailetan eta erakunde publikoetan –udalerrietan bereziki–, hiritarrek osasun- eta ekitate-maila handiagoak izan ditzaten.

Toki-gobernuek eragin zuzena dute herritarren osasunean, hainbat arlotan garatzen duten politikaren bidez, hala nola osasunean, hezkuntzan, gizarte-ongizatean, garraioan, ingurumenean, kulturen, hirigintzan, etxebizitzan, kirolean, segurtasunean eta abar. Zenbait politika, ordea, ez dira erabat toki-gobernuen eskumenekoak, baina, hala ere, halako politiken zerbitzuak toki-esparruan ematen dira, eta, hortaz, politika horiek koordinatuz gero sinergia positiboak lortuko dira osasunaren alde.

Agindu honen xedea da, beraz, osasuna indartzea toki-eremuko jardueretan eta osasun-arlokoak ez diren gainerako lan-eremuetan. Ekimen hau zeharo loturik dago Europako Batasunak gomendaturiko «Osasuna politika guztietan» estrategiarekin, bai eta Osasunaren Mundu Erakundearen Osasunaren Determinatzaile Sozialen gainean Batzordeak egindako txostenarekin ere. «Osasuna politika guztietan» strategiaren oinarrian dagoen egiaztapena da osasun-sektorearen eraginpeko eremutik kanpoko faktoreek eragiten dutela batez ere, osasunean.

Jarduera fisikoa sustatzeko Torontoko Gutunak dio, argi eta garbi, ohiko jarduera fisikokoak osasuna areagotu, gaixotasunei aurrea hartu, gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetu, etekin ekonomikoak eman eta, halaber, ingurumenaren iraunkortasunari laguntzen diola.

Jarduera fisikoa egiten ematen dugun denbora gehituz, eta egoneko jardueretan ematen dugun denbora gutxituz, populazio aktiboagoa lortuko dugu. Horrela, zenbait erronkari aurre egiteko aukera izango dugu, esate baterako: biztanleen etengabeko zahartzea eta osasun-sistemari eta gizarte-prestazioei eustea.

2013-2020rako Osasun Planaren helburuetako bat da herritarren artean jarduera fisikoa sustatzea, EAEn jarduera fisikoa sustatzeko Mugiment proiektuan zehaztutako jarraibideen eta estrategien arabera. Proposatutako ekintzetako bat da sareak sortzea, hain zuzen ere toki-eremuan jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarisinoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak koordinatzeko.

Hori dela eta, eta aurreko urteetako esperientzia oinarri hartuta, deialdi honen ardatza izango da herritarren egunerokotasunean jarduera fisikoa sustatzea eta toki-sareak ehuntzen laguntzea; sare horiek gune gisa eratuko dira, jarduera fisikoa sustatzeko gainerako estrategiak antolatzen.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Diru-laguntzaren esparrua eta xedea.

1.– Agindu honen xedea da EAEko toki-erakundeentzako, tokiko erakunde autonomoentzako eta tokiko merkataritza-sozietateentzako diru-laguntzak arautzea, helburu honekin: 2016an, jarduera fisikoa sustatzeko proiektuak garatzea, ingurune egokiak sortuz eta tokian-tokian ekintza komunitarioa sendotuz.

2.– Laguntza hauen xedea da honako hauek finantzatzea 2016ko ekitaldian:

a) Hirietan eta hiri-inguruetan ibilbideak edo pasealekuak egokitzeko eta dinamizatzeko programak eta esku-hartzeak, herritar guztiei zuzenduak; ibilbide horiek seguruak izango dira eta behar bezala seinaleztatuta egongo dira, ohiko joan-etorrietan mugikortasun aktiboa errazteko eta aisialdi aktiboa sustatzeko.

b) Tokiko sare bat sortzeko beharrezkoak diren jarduerak. Tokian-tokian jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarisinoa prebenitzeko ekintzak eta estrategiak lehenetsi, planifikatu eta garatuko ditu sare horrek, partaidetza-prozesuen bidez.

Tokiko sare bat egitura barnerakoi eta partaidetzazko bat da, komunitateko hainbat eragile biltzen dituen, hala nola administrazioak, hainbat esparru edo sektore (hezkuntza, gizarte, osasuna, kultura, ekonomia...) eta herritarrak, gizarte-erakundeak barne.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Honako hauek eska ditzakete jarduera fisikoa sustatzeko programak eta esku-hartzeak garatzeko diru-laguntzak: Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, mankomunitateek, bestelako toki-erakundeek, tokiko erakunde autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek.

2.– Tokiko merkataritza-sozietateek baldintza hauek bete beharko dituzte: euren kapitala titulartasun publikokoa izatea; parte hartzen duten udaletako osoko bilkurek izendatuak izatea diru-laguntzaren xedea den jarduera egiteko; eta egunean egotea Gizarte Segurantzari eta Ogasunari egin beharreko ordainketetan.

3.– Erakundeek, onuradun izateko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako betekizunak bete behar dituzte, besteak beste, egunean egotea diru-laguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharren ordainketan.

3. artikulua.– Aurrekontuko zuzkidura.

1. artikuluan adierazitako jardueretarako aurrekontu-zuzkidura, guztira, 292.000 (berrehun eta laurogeita hamabi mila) eurokoa izango da.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Honako hauek eragindako gastuak lagundu ahal izango dira diruz:

a) Ibilbideak seinaleztatzea.

b) Ibilbideak egokitzea, erabiltzaileentzako seguruagoak, erakargarriagoak eta iristen errazagoak izan daitezen. Honako hauek barne hartzen dira: eserlekuak, iturriak, zuhaiztiak edo komunak, beste batzuen artean.

c) Ibilbideak dinamizatzea, begiraleek gidatutako ibilaldiak antolatuz, ibiltari-taldeak gidatzeko pertsona boluntarioak prestatuz, jardunaldiak, tailerrak edo bestelako jarduerak antolatuz, herritarrek ibilbide horietan parte har dezaten.

d) Ibilbideari eta jarduera fisikoak eta ibiltzeak dakartzaten onurei buruzko informazioa ematen duten horma-irudiak eta bestelako publizitate-euskarriak sortzea eta jartzea.

e) Prozesu integratzaile eta partaidetzazkoak dinamizatzea, komunitateko eragileak erakartzeko eta gizarte-sareak sortzea ahalbidetuko duten loturak ezartzeko.

f) Prozesu integratzaile eta partaidetzazkoak dinamizatzea, hain zuzen ere tokiko sareei laguntza emateko jarduerak lehenesten eta jarduera horiek martxan jartzea erraztuko duten premiak eta baliabide komunitarioak antzematen.

g) Toki-hedabideetan zabaltzea burutzen ari diren jardueren berri, herritarren parte-hartzea sustatze aldera.

2.– Ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

Diruz laguntzen diren jarduketan horien BEZari dagozkionak.

5. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein erakunde publiko zein pribatuk eman litzakeen beste diru-laguntza batzuekin, betiere horren ondorioz gainfinantzaketarik ez badago.

2.– Lortutako laguntza eta diru-laguntza guztien batura jardueraren aurrekontu osoa baino handiagoa baldin bada, diru-laguntza murriztuko da soberakina kenduta.

6. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoaren mugak.

1.– Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak hauek izango dira:

a) 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan edo udalerriz gaindiko erakundeetan, gehienez ere, diruz lagundu daitezken gastuen zenbatekoaren % 20 eman daiteke, eta gehienez ere 8.000 euro proiektuko.

b) 7.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietan edo udalerriz gaindiko erakundeetan, gehienez ere, diruz lagundu daitezken gastuen zenbatekoaren % 50 eman daiteke, eta gehienez ere 8.000 euro proiektuko.

c) 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan edo udalerriz gaindiko erakundeetan, diruz lagundu daitezken gastuen zenbatekoaren % 80 eman daiteke, gehienez ere 8.000 euro proiektuko.

2.– Udalergi bakoitzeko biztanle-kopurua Eustaten datu berrienetatik aterako da.

7. artikulua.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1. artikuluan jasotako jardueretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabide-agiria, agindu honen I. eranskinean adierazitakoari jarraikiz, behar bezala beteta. Eranskin hori eskuragarri dago euskadi.eus webguneko egoitza elektronikokan, agindu honen izapideak elektronikoki egiteari buruzko artikuluan adierazitako moduan.

b) Jardueraren azalpen-memoria, agindu honen II. eranskinean adierazitakoari jarraikiz, behar bezala beteta. Eranskin hori eskuragarri dago euskadi.eus webguneko egoitza elektronikokan, agindu honen izapideak elektronikoki egiteari buruzko artikuluan adierazitako moduan.

c) Onespen-akordioa, hau da, eskatu den diru-laguntzaren xede den jarduerari onespena ematen diona, batetik, eta jarduera finantzatzeko erakunde eskatzaileak egingo duen ekarpenarena, bestetik.

d) Tokiko sare batek koordinatzen badu proiektua, eta sare hori gizarteko, hezkuntzako, osasuneko eta/edo arlo soziosanitarioko eragile komunitarioek osatzen badute, azalpen-txosten bat aurkeztu beharko da, partaide diren alderdi guztiek izenpetuta, akordio hori justifikatzeko; han, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira:

- Agiria/Akta, non jasotzen baita dagokion udalerrian tokiko sarea edo sektorearteko koordinazio-mahaia eratu dela, honako hauek zehaztuta: ordezkaturako eragileak, osaera eta eratze-eguna.

- Jarduera-kronograma.

e) Erakunde eskatzailea tokiko merkataritza-elkarte bat bada, aurreko ataletan eskaturako dokumentazioaz gainera, jarduera gauzatuko den udalerrietako osoko bilkuraren edo osoko bilkuren onarpen-akordioak aurkeztu beharko ditu, hau da, jarduera hori erakunde horrek gauzatuko duela adierazten dutenak.

f) Erakundearen izenean eskatzen duen pertsona fisikoak NANaren bidez identifikatu behar du bere burua, eta honako hauek aurkeztu behar ditu, salbu eta aldez aurretik Osasun Sailari entregatu badizkio: pertsona fisikoari eskatzailearen izenean jarduteko ahalmena ematen dion

administrazio-ebazpena edo ahalordea. Ahalordearen erregistro-inskripzioa egiaztatu egingo da, Merkataritza Erregistroa arautzen duen araudiaren arabera inskripzio hori beharrezkoa denean.

Erakunde eskatzailea erakundeentzako ziurtagiri elektronikoa onartu baten bidez identifikatu baldin bada, ez du egiaztatze dokumenturik aurkeztu behar.

g) Finantzaketaren xede izango litzatekeen jarduera hobeki ezagutzeko beharrezko den dokumentu osagarri oro.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Eskabideak aurkezteko epea 2016ko irailaren 16an bukatuko da.

2.– Aurrez aurre edo bitarte elektronikoa erabiliz aurkez daitezke eskabideak.

a) Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke Herritarren Arretarako Bulegoetan (Zuzenean), Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko lurralde-zuzendaritzetan, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

b) Halaber, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez izapidetu ahal izango dira, agindu honen izapide elektronikoei buruzko 22. artikuluan adierazitako euskadi.eus egoitza elektronikoen bidez.

3.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, eskabidea aurkeztu eta ondorengo jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako eskabideak ez dituela betetzen aurreko artikuluetan xedatutako eskakizunak, hamar egun balioduneko epea emango dio erakunde eskatzaileari akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Jakinaraziko dio, halaber, hori egin ezean, eskabidea bertan behera uzten duela ulertuko dela; horretarako, Osasuneko sailburuordeak ebazpen bat eman beharko du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan aurreikusi bezala.

10. artikulua.– Organo kudeatzaileak aurkeztutako datuak egiaztatzea.

1.– Eskabideetan adierazi ahalko da laguntza eskatu duen pertsonak/erakundeak baimena ematen diola espresuki organo kudeatzaileari nortasun-datuak eskuratzeko edo egiaztatze, eskabidea aurrez aurre edo bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuta ere, hargatik eragotzi gabe Herri Administrazioak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko duen ahalmena. Zehazki:

a) Kanal elektronikoa, interesduna aitortutako ziurtagiri elektronikoa batekin identifikatu bada, ez du agiririk aurkeztu beharko haren nortasuna egiaztatze.

b) Eskabidea aurrez aurre aurkeztuz gero, eta eskatzaileak baimena ematen badu administrazioak nortasun-datuak egiaztatu ditzan Barne Ministerioan, ez du inolako dokumenturik aurkeztu beharko, eta eskabidean adierazi beharko du deialdia egin duen organo kudeatzaileari baimena ematen diola administrazio eskumendunean datuak egiaztatze, jasotze edo baieztatze bitarteko elektronikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bitarteko bidez.

2.– Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez badio administrazioari datu horiek biltzeko baimenik ematen, datu horiek aurkeztu beharko ditu.

11. artikulua.– Eskakizunak egiaztatzea.

Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.3 artikulua 2. paragrafoak xedatzen duenari jarraikiz. Erakunde eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimena. Kasu horretan, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan aurrez ikusitako baldintzetan.

12. artikulua.– Eskabideak balioesteko irizpideak.

1.– Jarraian, balioespen-irizpideak zehaztuko ditugu, eta irizpide bakoitzari zenbat puntu dagozkion esango. Irizpide hauek erabiliko dira, hain zuzen, eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko:

a) Proiektuaren egokitasuna eta garrantzia herritarren artean jarduera fisikoa sustatzeari dagozkionez: 20 puntu, gehienez.

- Justifikazioa, helburuak.
- Garapen-faseak.
- Ebaluazio-proposamena.

b) Ibilbideen egokitasuna eta dinamizazioa: 30 puntu, gehienez.

- Seinaleak: ibilbideak aurkitzeko seinaleak, osasunerako onurei buruzko seinaleak, ikusteko moduko planoak oinezkoek ibilbidea egiteko beharko duten denbora eta distantziak ageri dituztela.

- Zabalkundea: hitzaldiak, parte-hartzea sustatzeko jardunaldiak, informazio inprimatua, toki-hedabideetan publizitatea egitea.

- Beste eragile komunitario batzuekin koordinatzea, izan gizarte, hezkuntza, osasun eta/edo arlo soziosanitariokoak.

c) Tokiko sareak sortu eta dinamizatzea: 40 puntu, gehienez.

- Prozesu integratzaile eta partaidetzazkoak erabiltzea, tokiko sarea sortzerakoan.
- Prozesu integratzaile eta partaidetzazkoak erabiltzea, hain zuzen ere premiak eta baliabide komunitarioak antzematen eta jarduera fisikoa sustatzeko jarduketak lehenesten eta martxan jarri tokiko sareak egiten duen koordinazio-lana errazteko.

d) Desberdintasun sozioekonomikoetan eta genero-desberdintasunetan arreta berezia jartzea: 10 puntu, gehienez.

2.– Honako proiektu hauek bakarrik lagunduko dira diruz: guztira, 30 puntu edo gehiago eta a) atalean gutxienez 15 puntu lortzen dutenak. Lehentasunezko ordenaren azken postuan berdinketarik egonez gero, artikulua honen a) puntuan puntuazio handiena lortu duen eskabideari esleituko zaio laguntza.

13. artikulua.– Eskaerak balioestea.

1.– Eskaerak balioespen-batzorde batek balioetsiko ditu, eta batzorde hori honako hauek osatuko dute: Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak (Miren Dorronsoro Iraeta andrea), zeina batzordeburua izango baita, eta Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariorde kargua dutenek (Concha Castells Carrillo andrea, Elena Albisua Cortazar andrea, Juan Carlos Fernández Crespo jauna).

2.– Balioespen-batzordeak dagokion artikuluan ezarritako balioeste-irizpideen arabera balioetsiko ditu eskabideak.

3.– Balioespen-batzordeak zehaztu egingo du elkarte, proiektu edo jarduera bakoitzerako zein den diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa eta zenbat puntu ematen zaion, betiere agindu honetan finkaturiko irizpideei jarraikiz.

4.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak, laguntzak kudeatzen dituen organoa den aldetik, eta/edo balioespen-batzordeak behar beste informazio eta dokumentazio osagarri eskatu ahal izango diete erakunde eskatzaileei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertzeko helburuarekin, betiere.

5.– Deialdi honetan ezarritako laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.4 artikuluari jarraituz.

6.– Agindu honetan araututako diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionalerako sistema bat aplikatuko da: 12. artikuluan zehaztutako irizpideak aplikatuz, balioespen-fasean lortzen den puntuazioaren arabera banatuko da 3. artikuluan zehaztutako dotazio ekonomiko osoa.

Hasierako banaketan esleitzen den zenbatekoak 6. artikuluan ezarritako mugaren bat gainditzen bada, muga hori aplikatuko da, eta soberakina balioespen-fasean lortutako puntuazioarekiko modu proportzionalerik banatuko da, muga horiek gainditzen ez dituzten proiektuen artean. Birbanaketa hori egingo da banaketa baten ondoren mugaren bat gainditzen bada edo harik eta diruz lagundutako eskabide guztiak gehieneko zenbatekoen arabera ordaintzen diren arte.

14. artikulua.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira. Eskabideen ebazpenean, interesdunek azaldutako gai guztiak erabakiko dira. Osasuneko sailburuordeari dagokio ebazpen hori ematea, balioespen-batzordearen proposamena kontuan hartuta.

2.– Ebazpenean ezarriko da eskatutako diru-laguntzak ematen edo ukatzen diren. Laguntzak ematea erabakitzen bada, honako hau adierazi beharko da: zein diren erakunde onuradunak, guttira zenbateko diru-laguntza emango zaion horietako bakoitzari eta zenbat emango zaion finantzatutako proiektu bakoitzari. Laguntzak ukatzen badira, berriz, zergatik ukatu diren adierazi beharko da.

3.– Prozedura ebatzi eta ebatzitikoa erakunde interesdunei jakinarazteko epea gehieneko ere lau hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe hori igarota, ebazpenik argitaratu ez bada, erakunde interesdunek diru-laguntza eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridi-

koaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4.– Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

5.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere aipatutako 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Agindu honek arautzen dituen diru-laguntzak erakunde onuradunei esleitu, eta, hala bada-gokio, ordaindu aurretik, amaituta egon behar dute Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako antzeko diru-laguntzen esparruan hasita dauden eta oraindik izapidetzen ari diren itzultze- edo zehatze-prozedurek.

15. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

1.– Diruz lagundutako jarduera benetan burutu dela justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Diru-laguntzaren xede den proiektua gauzatu izanaren deskribapen-memoria, izapide elektronikoei buruzko 8. artikuluan adierazitako euskadi.net egoitza elektronikoko III. eranskinean jasotakoa.

b) Diru-laguntzaren xede den proiektuaren helburua eta asmoa bete direla dioen ziurtagiria, toki-erakundeko idazkariarena edo erakunde eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonarena.

c) Fakturak edo baliozko beste ordainketa-egiaztagiri batzuk, toki-erakundeko idazkariak edo erakunde eskatzailearen ordezkariak sinatuak. Agiri horiek egiaztatu behar dute diru-laguntzaren xede den proiektua benetan egin dela.

d) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda, eta beste diru-laguntzarik, laguntzarik edo diru-sarrerarik eskuratu bada, hala adieraztea.

e) Agiri osagarriak, proiektua egin dela egiaztatzen dutenak, honako hauek barne direla: material grafikoa, bileren aktak eta bertaraturakoen zerrenda edo prozesuan sortutako beste agiri batzuk.

2.– Aldez aurretik eginiko gastuak ordaindu daitezke jasotako diru-laguntzarekin, baldin eta gastu horiek diru-laguntza jaso duten jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira eta 2016. urtean sortutakoak badira.

3.– Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2016ko abenduaren 15ean amaituko da, eta egun horixe izango da agiri horiek onartzeko azkena.

4.– Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurrez aurre zein bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango da, eskabideak aurkezteari buruzko 8.2 artikuluan azaltzen den moduan.

16. artikulua.– Justifikatzeko aurkeztutako agirien akatsak zuzentzea.

Ikusten bada justifikatzeko aurkeztutako agirietan akatsak daudela edo datuak falta direla, erakunde edo zentro onuradunari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, akatsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkez ditzan.

Errekerimendu hori ez badu betetzen garaiz eta forman, dagokion eskakizuna egiaztatu gabe dagoela ulertuko da, eta agindu honen 23. artikuluan aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

17. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

Ordainketa bakar bat egingo da, Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara diru-laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela justifikatzeko agiri guztiak igorri ondoren, agindu honen 15. artikulua arabera.

18. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen eta ezartzekoak diren beste betebeharrak batzuk alde batera utzi gabe, eta, batez ere, ezertan galarazi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua ezarritakoa, agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun diren erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza eman izanaren ebazpena EHAA-n argitaratu eta hamabost egunera, enpresa onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten, laguntza onartutzat joko da.

b) Diru-laguntzak emateko eskatutako eta kontuan hartutako betekizunen bati eragiten dion edozein inguruabar aldatzen bada, ahalik eta lasterren jakinaraztea.

c) Helburu bererako beste laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortu bada beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen baten aldetik, horren berri ematea organo kudeatzaileari, ahalik eta lasterren.

d) Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren aurrean justifikatzea diru-laguntza emateko edo baliatzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela, bai eta jarduera egin dutela ere.

e) Osasun Sailari laguntzea jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, segimendua egin, ebaluatu eta kontrolatzeko prozeduretan, eta honako kontrol-saio hauen mende jartzea: Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkionak –Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura emandako laguntzak diren heinean–, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian aurreikusitakoak.

f) Jasotako funtsak zertan erabili diren frogatzen duten agiriak 5 urtez gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatutako eta kontrolatutako izan daitezkeen bitartean.

g) Osasun Sailaren babesa dutela aipatu beharko dute, egiten dituzten agiritan eta publizitatean. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera txertatuko da; euskadi.eus-eko egoitza elektronikoa honetan dago eskuragarri: <http://goo.gl/z10BRe>

h) Aurkeztutako dokumentazioaren informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea emango zaio Osasun Sailari, dohainik eta era ez-esklusiboan, eta argitaratzeko moduko formatuan, Osasun Sailaren informazio-sisteman sartu eta erabiltzeko, eta bai zabaldu eta/edo argitaratzeko ere formatu bibliografiko, ikus-entzunezko, informatiko edota teknika erabiltzen uzten duen edozein bide baliatuz.

19. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak emateko ebazpena alda liteke baldin eta diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen bada– eta, hala badagokio, diru-laguntza horrekin batera Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio edo

erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzaren bat edo laguntzaren bat jaso bada. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Osasuneko sailburuordeak, eta, han, esleitutako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko dira, emateko ezarritako irizpide eta mugak aplikatuz. Beraz, erakunde onuradunek itzuli egin beharko dute jasotako gehiegizko zenbatekoa.

20. artikulua.– Diruz lagundutako jardueraren jarraipena.

Osasun Sailak komenigarri iriztitako alderdi guztiak gainbegiratuko, ikuskatuko eta egiaztatuko ditu lege honetan ezarritako arau guztiak betetzen direla bermatzeko. Era berean, edonoiz eman ahal izango die erabilera publikoa laguntza hauen bidez finantzatutako programa eta jardueren edukari eta emaitzei.

21. artikulua.– Datuak babestea.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzean ematen diren datuak «Laguntzak jasoko dituzten erakundeak» fitxategian sartuko dira, Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2011ko abenduaren 22ko Agindua aldatzen duen Osasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 2ko Aginduan ezartzen den moduan; agindu horren bitartez arautzen dira Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren (gaur egungo Osasun Saila) izaera pertsonaleko datuen fitxategiak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesten dituen 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz. Fitxategi horretako datuak ezin zaizkie hirugarrenei edo beste erakunde batzuei utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erakunde eskatzaileen laguntzak kudeatzeko baino ez ditu erabiliko. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil ditzake nahi duenak, legean xedatutakoarekin bat etorritik; horretarako, idazki bat igorri beharko dio Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari.

22. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapideak.

2.– Erakunde edo zentro eskatzaileak sinadura elektronikoko aitortuko sistemen bidez identifikatuko dira, hau da, entitatea edo pertsona juridikoa egiaztatzen duen txartelaren bidez, eta erakundea ordezkatzeko duten pertsona fisikoei dagokienean, berriz, e-NANaren bidez (Nortasun Agiri Nazional elektronikoa).

3.– Laguntzak izapidetzeko jarraibideak, izapidetze elektronikorako zuzeneko sarbidea eta Agindu honetan agertzen diren eranskinak euskadi.eus-eko honako egoitza elektronikoa honetan daude: <http://goo.gl/iNQq9j>

4.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bide elektronikoen bidez egin ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bidez: <http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

23. artikulua.– Ez-betetzeak.

Ez badira baldintzak betetzen edo ez badira diruz lagundutako jarduerak gauzatzen, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.2. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen ez badira, jasotako laguntzak eta haien legezko interesak itzuli beharko dira (osorik edo zati bat), abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, bermeari, itzultzeari eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen eta erakunde autonomoen bidez kudeatzeri buruzkoan, xedatuakoarekin bat; horrez gain, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37.2 artikulua bete beharko da, zeinak itzulketa partziala jasotzen

baitu, mailakatze-irizpideak gehituta. Laguntza horiek diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahalko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honetan berariaz ezarri gabeko guztiari dagokionez, honako hauetan xedatutakoak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean; eta azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 13a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Publikoaren eta Adikzioen ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE SALUD
Dirección de Salud Pública y Adicciones

I. ERANSKINA

TOKI ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA, JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO EKIMENAK EGITEKO

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA *

1

 Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

■ TITULARRA / IZEN SOZIALA

Izena / Erakundearen Izendapena *

Dokumentu Mota *

Lehen Abizena *

Bigarren Abizena *

Zenbakia * -

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua * Gizona Emakumea

■ ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen Izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia -

LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua Gizona Emakumea

JAKINARAZPENA *

2

 Elektronikoa Posta bidez

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) *

Herrialdea * ESPAINIA

Helbidea *

Zk ____ Pisua ____ Letra ____

PK *

Udalerrria *

Lurraldea *

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereziak)

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASO NAHI DIREN HIZKUNTZA * Euskera Gaztelania**BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK**

Titularren betebeharraren fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea / Probintzia *
 Aukeratu...

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Diru-laguntza eskatu duen lagunaren aldeko ordezkari-ahalgoa, merkataritza erregistroan inskribatuta, data honetan _____ eman zen, _____ urteko diru-laguntzen eskabidean, eta geroztik, aldaketarik ez dela egon adierazten du eskatzaileak.

Merkataritza Erregistroan inskribatutako estatutuen kopia data honetan _____ eman zen, _____ urteko diru-laguntzen eskabidean, eta geroztik, aldaketarik ez dela egon adierazten du eskatzaileak.

Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu diodala eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Administrazio Publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Ez nago zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, ere.

Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Egunean ditudala indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, araz zehaztu den bezala.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditut.

ADOSTASUNAK**Nortasun datuak**

Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoaren bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren **Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak **Laguntzak jasotzea dagokien entitateak** izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak** da fitxategi horren titularra, eta laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara** jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Eskatzaileak bere izenean jokatzen badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzen badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkarria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzeko duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

Pertsona juridikoak, beti jokatzen dute ordezkari gisa, beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkarria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzeko duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

2 JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELEKTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak www.euskadi.net/nirekudeaketak -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektronikoa bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...)

3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoak jasotzea erabaki badu, admisnitrazioak posta elektronikoa edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektronikoa edota mugikorra zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Dirección de Salud Pública y Adicciones

II. ERANSKINA

JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO JARDUERAREN AZALPEN-MEMORIA

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DUEN ERAKUNDEAREN DATUAK

Toki-erakundearen izena: * _____

IKZ: * - LETRA

Helbidea: * _____ zk: _____ Pisua: _____ Letra: _____

Udalerrria: * _____ Lurraldea: * _____ PK: *

Telefonoa: * Faxa:

E-mail: * _____

HARREMANETARAKO PERTSONAREN DATUAK

Lehen abizena: * _____ Bigarren abizena: * _____

Izena: * _____

Zein sailetakoa den: * _____

Teléfonoa: * Faxa:

E-mail: * _____

JARDUERAREN AURREKONTUA

Aurrekontua guztira: * _____ € Aurrekontua BEZik gabe: * _____ €

BANAKATUTAKO AURREKONTUA (BEZIK GABE)

Faseak	Aurrekontua

	Guztira
--	----------------

DIRU-LAGUNTZA ZER JARDUERETARAKO ESKATZEN DEN

Izenburua: * _____

DIRU-LAGUNTZA ESKATU DEN PROIEKTUAREN DESKRIKAPEN TEKNIKO ZEHATZA

JARDUERA GAUZATZEKO EPEA**(Jarri noiz hasi eta bukatuko den, edo, bestela, noiz gauzatzea aurreikusi den)**

Jardueraren hasiera-data: _____

Jardueraren amaiera-data: _____

BESTE FINANTZIAZIO ITURRI BATZUK

Baduzu beste finantziazio iturririk?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
Zein?	Zenbatekoa
Guztira	

Beste laguntzarik eskatu duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
Zein erakunderi?	Eskatutako zenbatekoa Emandako zenbatekoa
Guztira	

Sinadura:

Elkartearen arduraduna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
Osasun Publikoaren eta Adikzioen ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE SALUD
Dirección de Salud Pública y Adicciones

III. ERANSKINA

JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO JARDUERA EGIN DELA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA

Izartxoak (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEAREN DATUAK

Entitatearen izena *:

DIRU-LAGUNTZA ESKATU DEN JARDUERAREN IZENA

Izena: *

DIRU-LAGUNTZAK JASO DUEN PROIEKTUA OSO-OSORIK EGIN DELA ADIERAZTEKO MEMORIA

BESTE FINANTZIAZIO ITURRI BATZUK

Beste finantziazio iturririk izan duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
Zein?	Zenbatekoa
Guztira	

Beste laguntzarik jaso duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez
Zein erakundetatik?	Zenbatekoa
Guztira	

Adierazten dut justifikazio honetan eta justifikazioari erantsitako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla.

Sinadura:

Erakundearen lehendakari arduraduna